


AHORA ORAIN



1080€
HERRI EKIMENA INICIATIVA SOCIAL

Pentsio-sistema publiko batek zahartzaro duina bermatu behar du. Gaur egun, hori gertatuko dela ziurtatzeko modu bakarra da Nafarroako erakundeek konpromisoa hartzea, aurrekontuen bidez, 1.080 eurora iristen ez diren pentsioak osatzeko.

Egungo errealitate sozioekonomikoaren ondorioz, gizarteko sektore gero eta zabalagoek ez dute gutxieneko diru sarrerarik jasotzen duintasunez bizi ahal izateko. Nafarroan **50.949** pertsonak **1.080** eurotik beherako pentsioa jasotzen dute, eta horietatik % 66 emakumeak dira. Beste behin ere, argi geratzen da pentsioetako genero-arrakala egia ukaezina dela, emakumeek bizitzan zehar egin dituzten ordaindu gabeko zaintza lanekin erabat lotuta dagoena.

Ez dugu ezinezkorik ez aparteko ezer eskatzen: 2024rako Nafarroako Aurrekontuetan gutxieneko pentsioaren osagarria 1.080 eurotan 14 ordainsaritan ezartzeko eskariari bultzada bat eman nahi diogu. Horrek pobrezia-aren atalasearekin gutxieneko pentsioa eguneratzeko bidean jarriko gintuzke, Europako Gutun Sozialak ezartzen dituen diru sarreraren nahikotasun irizpideetan. Pobrezia atalase horrek, beste faktore soziosanitario batzuekin batera, zalantzarik gabe eragiten dio pertsonen osasunari.

2022an, Gizarte Segurantzak berak osatu zituen gutxieneko pentsio horiek, ezkontidea ardura-pean ez zuten 65 urtetik gorakoentzat, 685 € arte, 14 soldatatan. Nafarroako Gobernuak, zerga kenkarien bidez, zenbateko txikiko alarguntasun eta kontribuzio pentsioak osatzen zituen, 776 euroraino. 12.000 pentsiodun izan ziren, 12 milioi euro inguruko kostuarekin.

2023an, Gizarte Segurantzak gutxieneko pentsioak 743 € arte osatuko ditu, eta Nafarroako Gobernuak gauza bera egingo du 14 ordainsariko 845 eurora iritsi arte.

Gaur egun, Nafarroan, Gizarte Segurantzaren gutxieneko pentsioa 743 eurotik 1.080 euro arte osatzeak **32.000 pentsioduni** eragingo lieke; horietako % 66 emakumeak lirateke, eta kostua 60 milioi euro ingurukoa izango litzateke.

Borroka hori errenta bermatua handitzeko eskariarekin lotzen da, zailtasun ekonomikoak dituzten familiei gutxieneko diru sarrerak ziurtatzera bideratua. Horrela, bazterketa arriskuan dauden pertsonen diru sarrera duinak ziurtatuko zaizkie bizitzako etapa guztietan, aberastasuna banatzen lagunduz.

Foru erakundeek eskumen juridiko eta legal nahikoak dituzte osagarri hori ezartzeko. Hori guztiagatik, adierazpen hau sinatzen dugunok erreklamazio justu hori defendatzeko eskatzen diegu Parlamentuko talde politiko guztiei, beharrezkoa izan daitekeen aurrekontu partida onartuz.

Beraz, eskatzen dugu 2024ko Aurrekontu Legeak onar dezala nafar guztien gutxieneko pentsioa kopuru horretara iristeko behar den kopurua. Nafarroako herritar guztientzako bizitzaren duin baten alde, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, orain.

Iruñea, 2023ko irailaren 19a